



LEHEN AUKERA PROGRAMA

GAZTE LANGABEAK EUSKAL ENPRESETAN KONTRATATZEKO
LAGUNTZEN DEIALDIA.

2017

2017KO UZTAILAREN 27KO EBAZPENA

www.lanbide.euskadi.eus
LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK



Xedea

Titulua edo prestakuntza izanik ere beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak euskal enpresek edo bestelako erakundeek kontratatzeko oinarriak ezartzea eta horretara bideratutako laguntzak arautzea, haien enplegagarritasuna hobetzeko neurri gisa, lan-esperientzia lortzearen eta haien laneratzea sendotzearen bidez.





Baliabide ekonomikoak

Mugagabeko eta praktikaldiko kontratuen finantzazioa



2017. urterako ordainketa-kreditua:

2.000.000 €

2018ko konpromiso-kreditua

1.846.154 €

Guztira: 3.846.154 €

**DIRU-LAGUNTZA
GUZTIRA
LEHEN AUKERA:**

4.000.000 €

Erakunde kolaboratzaileek lan-eskaintzak jaso, erregistratu eta kudeatzeko finantzazioa.



2018. urterako ordainketa-kreditua:

Guztira: 153.846 €





Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak

■ Praktikaldiko kontratuak

Diru-laguntza jaso dezaketen kontratuen **baldintzak**:

- Gazteekin sinatutakoak, EAEn dauden lantokietako lanpostuetan jarduteko.
- **Beranduenez, 2017ko abenduaren 10ean** hasia
- Gutxienez **6 hilabete** irautea.
- Lanaldi osoa edo partziala (inoiz ez ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoa).
- Lanpostuak kontratatutako pertsonaren ikasketa-mailari edo trebakuntzari egokituta egon beharko du.
- Idatziz formalizatu behar da, titulazioa, hasiera- eta amaiera-data, iraupena, lanpostua eta urteko soldata gordina jasota, 3.2.d) artikuluan ezarritako gutxienekoen arabera.
- **Enplegu-sorrera garbia** ekarri behar dute berekin, kontratatuko den langilea lanean hasi aurreko 6 hilabeteotan enpresak batez beste duen langile kopuruarekiko. Kontratazioaren egunean, kontratu berri horrekin enpresako langileen batezbestekoa igoko da.
- Senidetasunik eza 3.4.a) artikulua arabera.

Edonola ere, kontratuak bat etorri beharko dute Langileen Estatutuarekin eta aplikatu daitezkeen gainerako araudiarekin.




Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak

■ Kontratu mugagabeak

Diru-laguntza jaso dezaketen kontratuen **baldintzak**:

- Gazteekin sinatutakoak, EAEn dauden lantokietako lanpostuetan jarduteko.
- **Beranduenez, 2017ko abenduaren 10ean** hasia
- Lanaldi osoa edo partziala (inoiz ez ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoa).
- Lanpostuak kontratatutako pertsonaren ikasketa-mailari edo trebakuntzari egokituta egon beharko du.
- Idatziz formalizatu behar da, titulazioa, hasiera- eta amaiera-data, iraupena, lanpostua eta urteko soldata gordina jasota, 3.2.d) artikuluan ezarritako gutxienekoen arabera.
- **Enplegu-sorrera garbia** ekarri behar dute berekin, kontratatuko den langilea lanean hasi aurreko 6 hilabeteotan enpresak batez beste duen langile kopuruarekiko. Kontratazioaren egunean, kontratu berri horrekin enpresako langileen batezbestekoa igoko da.
- Senidetasunik eza 3.4.a) artikuluaaren arabera.

Edonola ere, kontratuak bat etorri beharko dute Langileen Estatutuarekin eta aplikatu daitezkeen gainerako araudiarekin.





Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak

Erakunde Kolaboratzaileek 4.3 eta 4.4 artikuluan arautzen diren enplegu-eskaintzak bildu, erregistratu eta kudeatzea, haiek, azkenean, eta deialdi honen babesean, diruz lagun daitezkeen kontratuak formalizatuta amaitzen badira.






Enpresa eta Erakunde Onuradunak

■ Enpresak

Enpresa pribatuak (haien forma juridikoa edozein dela ere), ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak, elkarteak eta fundazioak, baldin eta hurrengo **baldintza** hauek betetzen badituzte:

- a) Helbide soziala eta fiskala EAEn izatea edo lantokia EAEn egotea.
- b) Herri-administrazio batek edo gehiagok enpresa horretan % 50etik gorako partaidetza ez izatea, ez zuzenean ez zeharka.
- c) Deialdi honen bidez kontratatuko den eta diru-laguntzaren eskaeraren helburua den lanpostuan enplegurik ez suntsitu izana, kontratazio berriaren aurreko urtean, eta ez suntsitzea diruz lagundutako kontratazioak iraun bitartean.
- d) Enpresaren langileen legezko ordezkari jakinarazi izana deialdi honen babesean kontratatzeko asmoa dagoela. Enpresak eskaeran berariaz adierazi beharko du LLO baduen ala ez.
- e) Berreskuratzeko agindu bete gaberik ez izatea, Europako Batzordeak aurretiaz hartutako erabaki baten bidez laguntza bat legez kanpokotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jo izanaren ondoriozkorik.





Enpresa eta erakunde onuradunak

Enpresa eta erakunde onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:

- Zerga arloko eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzea.
- Erakunde eskatzailearen xedeak eta helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolamendua edo estatutuak gizonen eta emakumeen tratu- nahiz aukera-berdintasunaren printzipioaren arabera izatea.
- Zigor- edo administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik ez jaso izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez jaso izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.
- Ez egotea Diru Laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13an artikuluan diru-laguntzak eskuratzeari dagokionez aurreikusitako ezein debeku-egoeratan.

Hurrengoek ezingo dute erakunde onuradun izan:

- Erakunde autonomoak.
- Baltzu publikoak.
- Herri Administrazio baten menpeko elkarte edo erakundeak.
- Eskura jartzeko enpleguetarako ABLEak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin behar da onuradunei diru-laguntzak edo laguntzak **eman eta ordaindu** ahal izateko.



Enpresa onuradunen betebeharrak


1.- Oro har, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikulua ezarritako betebeharrak betetzea.

Bereziki, honako hauek:

- a) Enplegu-eskaintzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulego batean edo erakunde kolaboratzaile batean aurkeztea hilabeteko epean, diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazitako egunetik aurrera..
- b) Diruz lagundutako kontratuak hiru hilabeteko epean formalizatzea, diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazitako egunetik aurrera. Nolanahi ere, 2017ko abenduaren 10a baino lehenago formalizatu beharko da.
- c) Diru-laguntza ematea eragin zuen jarduera gauzatzea.
- d) Betekizunak eta baldintzak betetzen direla Lanbideri justifikatzea.
- e) Dagozkion egiaztapen-jarduketak egin diezazkioten onartzea. Erakunde onuradunak gastuaren kontabilitate-erregistroa izan behar du, kontabilitate-identifikazio bereziarekin edo kontabilitate-kode egokiarekin.
- f) Helburu berberarekin diru-laguntzak edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea Lanbideri.
- g) Lanbideri jakinaraztea, diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein gorabehera aldatu izana.
- h) Lanbideri egiaztatze, segimendu eta kontroleko prozeduretan laguntzea.
- i) Izapidetzen ari diren itzultze- edo zehapen-prozeduren berri ematea Lanbideri.
- j) Berariaz aipatzea Lanbideren eta Europako Gizarte Funtsaren artean finantzatu direla laguntzak, EAEko 2014-2020 Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren barruan, diruz lagundutako jarduerak komunikatzeko, zabaltzeko edo argitaratzeko material eta ekintza guztietan.
- k) Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunari buruzko betebeharrak:
- l) Kontratutako pertsonen adostasuna lortzea, haien datuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskura jartzeko, eskatutako diru-laguntza kudeatzeko soil-soilik, eta deialdi honen 18. artikuluan xedatutako edukiaren berri ematea.

2.- Praktikaldiko kontratua amaitzean, ziurtagiri bat ematea langileari, non, gutxienez, kontratuaren iraupena, betetako lanpostua eta izandako eginkizunak jasoko baita.

Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, hizkuntza ez sexista erabili beharko dute, saihestu beharko dute emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista oro, eta irudi jakin bat sustatu beharko dute, balio hauek izango dituenak: berdintasuna, emakume eta gizonen presentzia orekatu bat, aniztasuna, ardura partekatua, eta rol eta genero identitate plurala.





Enpresa eta erakunde onuradunak

■ Erakunde Kolaboratzaileak

Hauek izan ahalko dira onuradunak:

- 2015eko urtarrilaren 23ko **Ebazpenaren** arabera (2015eko otsailaren 2an argitaratu zen), bitartekotza-zerbitzua ematerakoan jarduera hauek gauzatzeko baimena dutenak, enplegu-eskaintzak erregistratu eta kudeatzeari dagokionez eskusiboki.
- Hurrengo erakunde hauek izendatu ahalko dira erakunde kolaboratzaile, deialdi honi berariaz lotutako lan-eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko, baldin eta egoitza EAEn badaude:
 - ▶ Unibertsitateak.
 - ▶ Lanbide heziketako ikastetxe publikoak eta itunpeko pribatuak.
 - ▶ Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zentro eta erakunde laguntzaileak, 2015eko deialdiari dagozkion lanerako prestakuntza eta orientazioa emateko diru-laguntzen onuradun badira.
 - ▶ Udalak, mankomunitateak, kuadrillak, tokiko garapenerako agentziak eta Behargintzako zentroak.

I .
ERANSKINA



Hilabete bat, deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.





Kontratatutako gazteek bete beharreko baldintzak

- a) 16 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago izatea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.
- c) Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzailer gisa izena emanda egotea eta kontratua egiterakoan langabea izatea.
- d) Ondoko titulazio hauetakoren bat edukitzea:
 - ❑ Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra-Boloniako Plana
 - ❑ Unibertsitateko diplomatura, Ingeniaritza teknikoa, Arkitektura teknikoa edo Unibertsitateko Gradua-Boloniako Plana
 - ❑ Araitutako lanbide heziketako edo berariazko lanbide heziketako goi-edo erdi-mailako teknikaria. Honako bi tituluak ere aurrekoen baliokideak dira: teknikari laguntzailea (LH1) eta teknikari espezialista (LH2).
 - ❑ Onarrizko lanbide heziketa
 - ❑ Ofizialki, aurrekoen baliokidetzat hartutako beste titulazio batzuk.
 - ❑ Profesionaltasun-ziurtagiria.
- e) Tituluarekin lotutako enpleguetan 6 hilabeteko esperientzia izatea gehienez ere

Hautaketa-prozesuan **lehentasuna** emango zaie **Gazte Bermea Sistemako** datu-basean izena emanda dauden pertsoneri.





Parte hartzaileak hautatzeko prozedura

■ Enpresak

Hautaketa-prozesua Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez egingo da.

Diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik gehienez ere **hilabeteko** epea izango da **eskaintza kudeatzeko eskaera** aurkezteko, Lanbideren bulego batean, edo jarduera hauek gauatzeko Lanbidek baimendutako zentro laguntzaile batean. **IV. eranskina.**

Eskabide bat aurkeztuko da lanpostu-profileko, inplimaki normalizatua erabiliz. **IV. eranskina.**

Hautaketa-prozesuan **lehentasuna** emango zaie **Gazte Bermea Sistemako** datu-basean izena emanda dauden pertsonei.

Diruz lagundu ahal izango dira soilik eskaintza bat kudeatu ostean izangai gisa bidalitako pertsonak, eta hiru hilabeteko epean formalizatu beharko dira kontratu horiek, laguntzak emateko ebazpena argitaratutako egunetik hasita. Nolanahi ere, ezingo da kontraturik egin 2017ko abenduaren 10etik aurrera.

Aurreko deialdietan praktikaldiko kontraturen bat lortu dutenek, programa honetan lan-kontratu MUGAGABERAKO BAINO ezin izango dute parte hartu.






Kontratua amaitzea

Praktikaldiko kontratuen kasuan, kontratuen gutxienerako iraupena eskatutakoa edo diruz lagundutakoa izan beharko du, eta kontratu mugagabeen kasuan, berriz, 20 hilabetekoa izango da gutxienez.

Probaldia ez gainditzeagatik edo bidezko kaleratzea deklaratzeko lan-kontratua amaitzen bada, kontratatutakoak lana bere borondatez uzten badu, edo hiltzen bada edo ezinduta gelditzen bada


7 egun
kontratua amaitzen
denetik



Lanbideri horren berri emateko, kontratatutakoak lan egindako aldiaren zati proportzionalaren arabera diru-laguntza doi dezan

Kontratu-harremana lehen aurreikusi ez den beste kausaren batengatik amaitu bada, diru-laguntza oso-osorik itzuli beharko da, deialdi honen 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Enpresak beste pertsona bat edo batzuk kontratatu nahi baditu, beste eskabide bat aurkeztu beharko du, deialdi honetan aurreikusitako epean eta eran.





Diru-laguntzaren zenbatekoa

■ Enpresak

Praktikaldiko edo mugagabeko kontratua, titulu akademikoaren arabera	Urteko gutxieneko ordainsari gordina (aparteko ordainsariak barne)	Praktikaldiko kontratua		Kontratu mugagabea
		Diru-laguntza 6 hilabeterako	Diru-laguntza 12 hilabeterako	
Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra-Boloniako Plana	18.000,00 €	4.500,00 €	4.950,00 €	7.600,00 €
Unibertsitateko diplomatura, Ingeniaritza teknikoa, Arkitektura teknikoa edo Unibertsitateko Gradua-Boloniako Plana	15.200,00 €	3.800,00 €	4.180,00 €	6.700,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	13.000,00 €	3.250,00 €	3.575,00 €	5.900,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), Onarrizko lanbide heziketa eta Profesionaltasun Ziurtagiria	11.200,00 €	2.800,00 €	3.080,00 €	5.200,00 €


- ▶ Diru-laguntzen zenbateko hauek lanaldi osoko kontratuei dagozkie, lanaldi partzialekoetarako lanaldiaren proportzioan doitu dira.
- ▶ Zenbateko horiek % 10 handituko dira **azpi-ordezkatuta dauden lanetan emakumeak** kontratatzen badira. Arlo horiek jasotzen dituen taula Lanbide EEZaren webgunean argitaratuko da. Eskaintza atzematea eta erregistratzea

■ Erakunde Kolaboratzaileak

Eskaintza atzematea eta erregistratzea	120 euro
Eskaintzaren kudeaketa	80 euro



- ▶ Zenbatekoak %10 handituko dira deialdi honen babesean formalizatutako eta diruz lagundutako 20 kontratuko, enplegu-eskaintzak hartu, erregistratu eta/edo kudeatuko baditu.





Eskaerak aurkeztea

■ Diru-laguntza eskatzeko epeak

**II. ERANSKINA
ENPRESAK**



Kontrataziorako diru-laguntzaren eskaera:
Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta
biharamunetik aurrera

2017ko azaroaren 10ra arte

**III. ERANSKINA
ERAKUNDE
KOLABORATZAILEAK**



Enplegu-eskaintzak atzeman, erregistratu eta/edo
kudeatzeagatiko diru-laguntza:


2018ko urtarrilaren 2tik otsailaren 28ra





Diru-laguntzaren ordainketa

Enpresak



1. ordainketa: % 52
Kontratuak formalizatu ondoren (*)

2. ordainketa: % 48
edo justifikazioari dagokion zenbatekoa (**)

- **10 egun balioduneko epean hauek aurkeztu ondoren:** Kontratuaren kopia, senidetasunik ez egoteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, enpresan dauden langileen batez besteko kopuruaren egiaztapena, "Alta egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena" izeneko bi txostenen bitartez, zeinak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emango baititu (RED sistemaren bidez eskuratuta) enpresak EAEn dituen lantokiei buruzkoak: txostenetako bat kontratatutako pertsonari enpresan alta eman aurre-aurreko 6 hilabetei buruzkoa izango da, eta, bestea, kontratazioaren alta egunari buruzkoa.

**** Praktikaldiko kontratua amaitu eta Lan-kontratu mugagabeen kasuan, hasi eta urtebete igaro ondoren eta hilabetera justifikatu beharrekoa, 2018ko abenduaren 20a baino lehen betiere:** Azken Memoria, zeinak kontratatutako gazteen zerrenda eta kontratuen iraupena jasoko baititu.

Erakunde
kolaboratzaileak



Ordainketa bakarra
Diru-laguntza emateko ebazpenaren
ondoren





Prozedura eta izapidetzea

Eskaerak izapidetzea



Aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira, eta hurrenkera horretan emango zaizkie diru-laguntzak deialdiko eskakizunak betetzen dituzten guztiei, harik eta finantzaketarako **funtsak amaitu** arte.

Izapidetzeko organo eskuduna



Lan Aktibazioko Zuzendaritza

Ebazteko organo eskuduna



Lanbideko Zuzendaritza Nagusia

Ebazpena



Gehieneko epea: **6 hilabete**, eskaintza aurkezten den egunetik hasita. Administrazio-bidea amaitzen du.

Errekurtsoa



Aukerako berraztertze errekurtsoa, **hilabeteko** epean, edo Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, **bi hilabeteko** epean.





Prozedura eta izapidetzea

Publizitatea



Enpresa onuradunen zerrenda eta ematen diren kopuruak EHAAn argitaratuko dira. Nolanahi ere, diru-laguntza emateko ebazpena berriaz eta banaka ere jakinaraziko da.

Jarraipena eta kontrola



Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europako Funtsak kontrolatzeko instantziak egin ahal izango dituzte deialdi honen helburuak beteko direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskaritza- eta kontrol-ekintzak. Horretarako, diruz lagundutako kontratazioei buruzko dokumentazio guztia gorde eta zaindu beharko du enpresak, gutxienez 2024ra arte, deialdi honen ondoriozko konpromiso eta betebeharrak betetzen dituela egiaztatu ahal izateko.

Diru-laguntza aldatzea



Baldintzen aldaketa horren ondorioz diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

Bateraezintasunak



Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak dira kontzeptu eta helburu berberetatik beste diru-laguntza, laguntza eta diru-sarrerekin; ez ordea, lan-kontratu mugabeetarako edo praktiketako kontratuetarako Gizarte Segurantzari egindako kotizazioetako hobariekin.





Prozedura eta izapidetzea

Ez-betetzea

Deialdi honetako erakunde onuradunek jasotako zenbatekoak eta legeko interesak –laguntzak ordaintzen direnetik aurrerakoak– itzuli beharko dituzte, baldin eta honako xedapen hauetan oro har aurreikusitako betebeharrak betetzen ez badituzte: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 50.2 artikulua. Zenbatekoak eta interesak itzuli beharko dituzte, orobat, deialdi honetan ezarritako betebeharrak espezifikoak betetzen ez badituzte edo azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 53.1 artikuluan diru-laguntzak itzultzeko ezarritako kasuetako batean sartzen badira. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak abiaraziko du itzultzeko prozedura.

15 eguneko epea emango da **alegazioak** aurkezteko.

Itzultzeko prozedura Lanbideko zuzendari nagusiak abiaraziko du, eta, horrela badagokio, egiteke dauden ordainketak etengo ditu.

Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan halakorik aurkeztu ez badu edo onartu ez badira, Lanbideko zuzendari nagusiak ebazpena emango du. **Ebazteko** gehieneko epea **12 hilabetekoa** izango da.

Ebazpenaren arabera ez-betetzetik izan bada, interesdunak **bi hilabeteko** gehieneko epean itzuli beharko dizkio dagozkion kopuruak Lanbideri, **ebazpena jakinarazten denetik** zenbatzen hasita. Epe hori borondatezko epetzat joko da. Borondatezko epearen barruan ordaindu ezean, premiamendu-bideari ekingo zaio.

Itzulketa





Prozedura eta izapidetzea

Lehiakortasunari buruzko Europako Arautegia

Deialdi honetan, gazteak kontratatzeagatik zehaztutako laguntzek bat etorri beharko dute "minimis" laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruz Batzordeak 2013ko abenduaren 18an egindako 1407/2013 (EE) Erregelamenduarekin (DOUE L352, 2013-12-24). Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakarrari "minimis" laguntzetan emandako guztirako zenbatekoa ezin izango da 200.000 euro baino gehiago izan hiru ekitaldi fiskalen barruan.

Muga hori aplikatzeko, kontuan hartu beharko da nola definitzen den "enpresa bakarra" Erregelamendu horren 2.2 artikuluan.



LAN AKTIBAZIOKO ZUZENDARITZA

DIRECCIÓN DE ACTIVACIÓN LABORAL

